

**FINANTZA-  
KONTROLERAKO  
URTEKO PLANA:  
2024ko  
EKITALDIA**

## **EDUKIEN AURKIBIDEA**

### **I. ZATIA: ZIOEN ADIERAZPENA**

1. SARRERA
2. BARNE-KONTROL EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN ADIERAZPENAK
  - 2.1. KONTU-HARTZAILETZA
    - 2.1.1. Aldez aurreko fiskalizazioa
    - 2.1.2. Kontu-hartze formala
    - 2.1.3. Kontu-hartze materiala
  - 2.2. FINANTZA-KONTROLA
    - 2.2.1. Etengabeko kontrola
    - 2.2.2. Auditoretza publikoa
3. BARNE-KONTROLEKO MODALITATEEN APLIKAZIO-EREMU SUBJEKTIBOA

### **II. ZATIA: FINANTZA-KONTROLERAKO URTEKO PLANA, IRISMENA ETA HELBURUAK**

1. FINANTZA-KONTROLAREN PLANGINTZA
2. EREMU SUBJEKTIBOA
3. FINANTZA-KONTROLERAKO URTEKO PLANAREN DENBORA-IRISMENA
4. FINANTZA-KONTROLERAKO URTEKO PLANAREN EDUKI OROKORRAK
  - 4.1. LEGEZKO BETEBEHARREN ONDORIOZKO JARDUKETAK
  - 4.2. PLANAREN JARDUKETAK 2024ko EKITALDIAN

### **III. ZATIA: FINANTZA-KONTROLAREN EMAITZAK, ONDORIOAK ETA ERAGINAK**

## I. ZATIA: ZIOEN ADIERAZPENA

### 1. SARRERA

Finantza-kontrolerako plan honek Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuak ezarritako kontrol-beharrei erantzuten die, bai eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako dirulaguntzen justifikazioa kontrolatzeko betebeharrari ere, aldez aurreko fiskalizazio mugatua izan duten arloetan finantza-kontrola ondoren eginda.

32/2018 Foru Dekretuaren 31. artikuluan ezarritakoaren arabera, «Organo kontu-hartzaileak kontrol finantzarioko urteko plan bat prestatu beharko du, ekitaldian egin beharreko kontrol iraunkorreko eta auditoretza publiko jarduketak jasoko dituen».

Barne-kontrolerako moduak aurrera eramateko, "toki entitateak beharrezkoak eta nahikoak diren baliabideak jarri beharko ditu. Tokiko sektore publikoaren barne kontrola zuzenean organo kontu-hartzaileak edo, bestela, hark eskuordetutako organoek egin ahal izango dute. Era berean, barne kontrola egiteko, toki entitatek kanpo kontratatutako bitartekoen lankidetzaz baliatu ahal izango da, betiere organo kontu-hartzaileak gainbegiratuta eta zuzenduta, kontrol finantzarioa egiten denean.»(32/2018 Foru Dekretuaren 4.3 artikulua).

### 2. BARNE-KONTROL EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN ADIERAZPENAK

32/2018 Foru Dekretuak jasotzen ditu barne-kontrola aplikatzeko moduak. Hauek dira:

#### 2.1 KONTU-HARTZAILETZA

Kontu-hartzailetzaren helburua da ekonomian, finantzetan eta ondarean eragiteko moduko egintzak ikuskatzea eta haietan aldez aurretik esku hartzea, onartu aurretik.

Kontuan izan behar da aldez aurreko fiskalizazioa eta aldez aurreko esku-hartzea kontu-hartzailetza eginkizunetan diren bi egoera direla.

##### 2.1.1 Aldez aurreko fiskalizazioa

Eduki ekonomikoko eskubideak onartu, gastuak baimendu edo onartu, gastuak xedatu edo konprometitu, bidegabeko sarreren itzulketa erabaki eta agindu eta funts eta baloreen mugimenduak erabakitzen dituzten egintzak fiskalizatzea da aldez aurreko fiskalizazioa (32/2018 Foru Dekretuaren 7.1.a) artikulua).

### **2.1.2 Kontu-hartze formala**

Kontu-hartzaitza eginkizunaren mende izan behar duten espedienteetan den dokumentazioa kontrolatzeko jarduketa da, eta akordioa hartzeko legez eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzea du helburu.

### **2.1.3 Kontu-hartze materiala**

Kontu-hartze materialaren helburua da funts publikoak benetan eta eraginkortasunez aplikatzen direla egiaztatzea.

## **2.2. FINANTZA-KONTROLA**

«Kontrol finantzarioaren xedea da –32/2018 Foru Dekretuaren 3.3 artikulua araberaziurtatzea alderdi ekonomiko-finantzarioari dagokionez tokiko sektore publikoko zerbitzuen funtzionamendua. Izan ere, helburua da egiaztatzea haiei buruzko araudia eta jarraibideak betetzen dituztela eta, oro har, haien gestioa kudeaketa finantzario onaren printzipioekin bat datorrela, betiere begiratuta baliabide publikoen kudea-keta eraginkortasunak, efizientziak, ekonomiak, kalitateak eta gardentasunak nahiz aurrekontu egonkortasuneko eta finantza iraunkortasuneko printzipioek gidatuta daudela tokiko baliabide publikoen erabilpenari dagokionez».

Finantza-kontrolak kontrol iraunkorraren eta auditoretza publikoaren modalitateak hartzen ditu.

### **2.2.1. Etengabeko kontrola**

Etengabeko kontrolaren helburua da egiaztatzea, etengabe, tokiko sektore publikoaren ekonomiaren eta finantzaren funtzionamendua bat datorrela ordenamendu juridikoarekin eta finantza-kudeaketa onaren printzipio orokorrek, azkeneko helburua dela kudeaketa hobetzea ekonomia, finantza, ondare, aurrekontu, kontabilitate, antolamendu eta prozedura aldetik. Zehazki, finantza-kontrolaren barruan, finantza-kontrolerako urteko planean jasotako kontrol-jarduerak eta ordenamendu juridikoan kontu-hartzaileari esleitutako jarduketak sartzen dira.

### **2.2.2. Auditoretza publikoa**

32/2018 Foru Dekretuaren 29.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, «Auditoretza publikoan, egiaztatu egingo da, geroago eta sistematikoki, tokiko sektore publikoaren jarduerak ekonomiko-finantzarioa, eta, horretarako, sektore publikoaren auditoretza arauetan jasotako berrikuspen prozedura selektiboak erabiliko dira». Auditoretza publikoak modalitate hauek ditu:

#### **a) Kontuen auditoretza**

Xedea da egiaztatzea urteko kontuen bidez ondarearen, egoera finantzarioaren, entitatearen emaitzen eta, hala badagokio, aurrekontuaren exekuzioaren irudi leiala islatzen ote den, alderdi esanguratsu guztietan, hari aplikagarri zaizkion kontabilitate eta aurrekontu arau eta printzipioekin bat eginez, eta, baita ere, urteko kontuetan haiek egoki interpretatu eta ulertzeko behar den informazioa ematen ote den (32/2018 Foru Dekretuaren 29.3 a) artikulua).

**b) Betetze auditoretza**

Kudeaketa ekonomiko-finantzarioko egintzak, eragiketak eta prozedurak haie aplikagarri zaizkien araei jarraituz gauzatu direla egiaztatzea du xede, eta tokiko sektore publikoaren kudeaketa hobetzea du helburu, zehazki, alderdi hauetan: ekonomia, finantzak, ondarea, aurrekontua, kontabilitatea, antolaketa eta prozedura (32/2018 Foru Dekretuaren 29.3.b) artikulua).

**c) Auditoretza operatiboa**

Auditoretza operatiboa: sistematikoki eta objektiboki aztertuko dira antolakunde, programa, jarduera edo funtzio publiko baten eragiketak eta prozedurak. Haren helburua izango da balorazio independente bat egitea haien arrazionaltasun ekonomiko-finantzarioaz eta kudeaketa onaren printzipioekiko egokieraz, betiere balizko akatsak sumatu eta gomendio egokiak proposatze aldera (32/2018 Foru Dekretuaren 29.3.c) artikulua).

**3. BARNE-KONTROLEKO MODALITATEEN APLIKAZIO-EREMU SUBJEKTIBOA**

32/2018 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera, barne-kontrolako modalitateak kasuan kasuko erakundeen izaeraren arabera aplikatzen dira. Hona hemen azalpen-taula:

Aplikazio eremu subjeliboa	Aurretiko fiskalizazioa	Kontrol finantzarioa				Erakunde laguntzaileen eta dirulaguntzen onuradunen finantza-kontrola
		Etengabeko kontrola	Auditorerza publikoa			
			Kontuen auditorerza	Betetze auditorerza	Operatiboa	
UDALA	BAI	BAI	EZ	EZ	EZ	BAI
PATRONATO DEPORTES	BAI	BAI	BAI	EZ	EZ	BAI
DONOSTIATIK	BAI	BAI	BAI	EZ	EZ	EZ
ESCUELA MÚSICA Y DANZA	BAI	BAI	BAI	EZ	EZ	EZ
PALACIO MIRAMAR	BAI	BAI	BAI	EZ	EZ	EZ
EPE DONOSTIA KULTURA	EZ	EZ	BAI	BAI	BAI	BAI
EPE ETXEGINTZA	EZ	EZ	BAI	BAI	BAI	BAI
SCDAD BALNEARIO LA PERLA	EZ	EZ	BAI	BAI	BAI	EZ
POLLOE SERVICIOS FUNERARIO	EZ	EZ	BAI	BAI	BAI	EZ
DONOSTIA TURISMO	EZ	EZ	BAI	BAI	BAI	EZ
VICTORIA EUGENIA	EZ	EZ	BAI	BAI	BAI	EZ
FUNDACIÓN CRISTINA ENEA	EZ	EZ	BAI	BAI	BAI	EZ
MUSEO SAN TELMO	EZ	EZ	BAI	BAI	BAI	EZ
FOMENTO DE SAN SEBASTIAN	EZ	EZ	BAI	BAI	BAI	BAI
COMPAÑIA DEL TRANVÍA DE SS	EZ	EZ	BAI	BAI	BAI	EZ
ANOETA KIROLDEGIA	EZ	EZ	BAI	BAI	BAI	EZ

Azalpen-taula hori ikusita, ondorio hau atera dezakegu:

1. Aldez aurreko fiskalizazio mugatua eta etengabeko kontrola toki-erakunde nagusian (Donostiako Udala) eta haren mendeko edo hari atxikitako erakundeetan (Kiroletako Udal Patronatua, Donostiatik, Musika eta Dantza Eskola eta Miramar Jauregia partzuergoa) egiten dira.
2. Kontuen auditorerza publikoa, berriz:
  - Aurrekontu mugatzailea duten mendeko edo atxikitako erakundeetan (Kiroletako Udal Patronatua, Donostiatik, Musika eta Dantza Eskola eta Miramar Jauregia)
  - Udalaren mendeko enpresa-erakunde publikoetan (EPE Donostia Kultura eta EPE Etxegintza)
  - Udalaren partaidetza osoa duten sozietateetan (Sociedad del Balneario La Perla del Óceano, S.L., Polloe Donostiako Hileta Zerbitzuak, S.A., Donostia Turismoa, S.A., eta Victoria Eugenia, S.A.)
  - Cristina Enea Fundazioan, baltzuak dituen estatutuetan hala jarrita dagoelako.
  - Merkataritza-legeriaren arabera ikuskatzera behartuta dauden sozietateak: Donostia Sustapena, S.A., Donostiako Tranbia Konpainia, S.A., San Telmo Museoa, S.A. eta Anoeta Kiroldetgia, S.A. Hala ere, ikusiko den bezala, sozietate horien kontu-ikuskaritza

ez da Finantza Kontrolerako Urteko Planean sartzen, sozietate horien auditore pribatuak egin behar baitu txosten hori, organo kontu-hartzailearen ezereen esku-hartzerik gabe.

3. Betetze-mailari buruzko auditoretza publikoek eta operatiboek hauek hartzen dituzte barnean:

- Udalaren mendeko enpresa-erakunde publikoetan (EPE Donostia Kultura eta EPE Etxegintza)
- Udalaren partaidetza osoa duten sozietateetan (Sociedad del Balneario La Perla del Óceano, S.L., Polloe Donostiako Hileta Zerbitzuak, S.A., Donostia Turismoa, S.A., Victoria Eugenia, S.A., Donostiako Sustapena, S.A., Donostiako Tranbiaren Konpainia, S.A., San Telmo Museoa, S.A. eta Anoeta Kiroldgia S.A.)
- Cristina Enea Tokiko Fundazio Publikoa

4. Erakunde laguntzaileen eta dirulaguntzen onuradunen finantza-kontrola Udalari berari egiten zaio, eta baita dirulaguntzak ematen dituzten mendeko erakundeei ere (Kiroletako Udal Patronatua, EPE Donostia Kultura, EPE Etxegintza eta Donostiako Sustapena, S.A.).

## **II. ZATIA: FINANTZA-KONTROLERAKO URTEKO PLANA, IRISMENA ETA HELBURUAK**

### **1. FINANTZA-KONTROLAREN PLANGINTZA**

Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren 31. artikulua jartzen du finantza-kontrolaren plangintza nola egin behar den:

*«1. Organo kontu-hartzaileak kontrol finantzarioko urteko plan bat prestatu beharko du, ekitaldian egin beharreko kontrol iraunkorreko eta auditoretza publiko jarduketak jasoko dituena.*

*2. Kontrol finantzarioko urteko planak barnean hartuko ditu, batetik, legezko betebeharrak baten ondorioz organo kontu-hartzaileak egin beharrekoak diren jarduketak guztiak eta, bestetik, helburuak, ekitaldi bakoitzeko lehentasunak eta eskura dauden bitartekoak aztertzen dituen arrisku analisi batean oinarrituta urtez urte aukeratzen diren jarduketak.*

Arriskutzat hartuko da kontrolpeko kudeaketan gauza hauek ekar ditzaketen gertaerak edo zirkunstantziak izateko posibilitatea: araudi aplikagarria ez betetzea, informazio finantzarioaren fidagarritasunik eza, aktiboaren babes desegokia edo kudeaketaren eraginkortasunik eta efizientziarik eza.

Behin arriskuak identifikatuta, jarduketak aukeratzeko lehentasunak jarri beharko dira. Horrela, arriskuaren garrantzia baloratzeko ebaluazio bat egingo da, irizpide kuantitatiboak nahiz kualitatiboak erabilita, eta aldizka eta txandaka kontrolak aukeratzeko komenigarria ote den begiratu da. Saihestu egingo da arriskurik gabekotzat hartutako jarduera ekonomiko-finantzarioetan kontrolak errepikatzea zein behin eta berriz kontrolik ez izateagatik ahuleziak sortzea.

3. Behin arriskuak identifikatuta eta ebaluatuta, organo kontu-hartzaileak kontrol finantzarioko urteko plana prestatuko du. Horretarako, egitekoak diren jarduketak zehaztu eta haietako bakoitzaren hedadura objektiboa, subjektiboa eta denborazkoa identifikatuko du.

Horrela prestatutako plana osoko bilkurara bidaliko da, haren berri emate aldera.

4. Kontrol finantzarioko plana honako hauek direla-eta aldatu ahal izango da: eskaera bati edo legezko agindu bati jarraituz egindako kontrolak, kontrolpeko entitateen egituran izandako aldaketak, bitartekoen nahikotasunik eza edo behar bezala aztertutako beste arrazoi batzuk. Kontrol finantzarioko urteko plana osoko bilkurara bidaliko da, haren berri emate aldera».

## 2. EREMU SUBJEKTIBOA

2024ko Finantza Kontrolerako Urteko Planaren irismen subjektiboa hau izango da:

Aplikazio eremu subjektiboa	Kontrol finantzarioa					Erakunde laguntzaileen eta dirulaguntzen onuradunen finantza-kontrola
	Etengabeko kontrola	Auditorretza publikoa				
		Kontuen auditorretza	Betetze auditorretza	Operatiboa	Etengabeko kontrola egiten ez zaien entitateen fakturen kontabilitatea-erregistroa	
UDALA	BAI	EZ	EZ	EZ	EZ	BAI
PATRONATO DEPORTES	BAI	BAI	EZ	EZ	EZ	BAI
DONOSTIATIK	BAI	BAI	EZ	EZ	EZ	EZ
ESCUELA MÚSICA Y DANZA	BAI	BAI	EZ	EZ	EZ	EZ
PALACIO MIRAMAR	BAI	BAI	EZ	EZ	EZ	EZ
EPE DONOSTIA KULTURA	EZ	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
EPE ETXEGINTZA	EZ	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI
SCDAD BALNEARIO LA PERLA	EZ	BAI	BAI	BAI	BAI	EZ
POLLOE SERVICIOS FUNERARIOS	EZ	BAI	BAI	BAI	BAI	EZ
DONOSTIA TURISMO	EZ	BAI	BAI	BAI	BAI	EZ
VICTORIA EUGENIA	EZ	BAI	BAI	BAI	BAI	EZ
FUNDACIÓN CRISTINA ENEA	EZ	BAI	BAI	BAI	BAI	EZ
MUSEO SAN TELMO	EZ	EZ	BAI	BAI	BAI	EZ
FOMENTO DE SAN SEBASTIAN	EZ	EZ	BAI	BAI	BAI	BAI
COMPañIA DEL TRANVÍA DE SS	EZ	EZ	BAI	BAI	BAI	EZ
ANOETA KIROLDEGIA	EZ	EZ	BAI	BAI	BAI	EZ

## 3. FINANTZA-KONTROLEKO URTEKO PLANAREN DENBORA-IRISMENA

Plan honek 2024ko ekitaldia hartzen du.

Plan honen ondoren, beste bat egingo da, plan honetan jasotako kontsiderazioak kontuan hartuta Hala ere, plan berria onartu arte, luzatutzat joko da hau.



## **4. FINANTZA-KONTROLERAKO URTEKO PLANAREN EDUKI OROKORRAK**

### **4.1. LEGEZKO BETEBEHARREN ONDORIOZKO JARDUKETAK**

#### **4.1.1 NAHITAEZKO KONTROL IRAUNKOR EZ-PLANIFIKAGARRIA**

Huek dira, 128/2018 Errege Dekretuko 4.1.b) artikularen arabera, kontu-hartzailearen berezko legeko betebeharretatik etorritako etengabeko finantza-kontrolaren jarduketak:

- 1.- Dirulaguntza eta laguntza publikoen kontrola, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.
- 2.- Aurrekontu-proiektuen eta haiek aldatzeko espedienteen txostena.
- 3.- Kreditu-eragiketak hitzartu edo aldatu aurreko txostena egitea.
- 4.- Aurrekontuaren kitapena onartu aurretik txostena egitea.
- 5.- Lehendakaritzak, zinegotzien edo diputatuen herenak ekonomia, finantza edo aurrekontuei buruz eskatutako txostenak, irizpenak eta proposamenak egitea –edo legez gehiengo berezia behar duten gaietarako buruzkoak–, bai eta zerbitzu berriak ezartzearen edo direnak aldatzearen egokitasunari buruzko irizpena ematea ere, proposamen horien eragin ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontu-egonkortasuna ebaluatze aldera.
- 6.- Ekonomiaren, finantzen eta aurrekontuen arloko txostenak eta ziurtagiriak egin eta dagokion araudiak ezartzen dituen organoetara bidaltzea.

Jarduera horiek planifikatu ezin direnez, ez dira Finantza Kontroleko Urteko Planean sartzen.

Hala ere, dirulaguntza eta laguntza publikoen kasuan, eta Udalean eta horiek ematen dituzten erakunde autonomoetan emandako dirulaguntzen gainean egiten den etengabeko kontrolaz gain, komenigarritzat jo da kontrol hori zabaltzea dirulaguntzak ematen dituzten EPE eta mendeko sozietateen kasuan, zehazki, betetze-auditoriaren barruan. Horretarako, 32/2018 Foru Dekretuaren 4.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, kanpoko lankidetzat bat kontratatu da, dagokion lizitazioaren bidez, eta, haren bidez, jarduketa hauek egiaztatuko dira:

- **DIRULAGUNTZAK** emateko arloan aplikatu beharreko legeriaren betetze-maila egiaztatzea. Erakunde bakoitzaren urteko 3 espediente aztertuko dira, irismen honekin:

\* Laguntzen deialdia eta arau erregulatzailerak dagokion argitalpenaren xede izan direla egiaztatzea.

\* Arau erregulatzailerak eta laguntzak emateak organo eskudunek baimenduta daudela

egiaztatzea, estatutu sozialen edo erakundea sortzeko arauen arabera.

\* Egiaztatzea arau erregulatzailerik honako hauek jasotzen dituztela gutxienez: laguntzaren edo dirulaguntzaren xedearen definizioa, onuradunek laguntza edo dirulaguntza lortzeko bete behar dituzten baldintzak, laguntza edo dirulaguntza esleitzeko irizpide objektiboak eta laguntzaren edo dirulaguntzaren banakako zenbatekoa edo hura zehazteko irizpideak, eta, hala badagokio, laguntza edo dirulaguntza kudeatzeko organo eskudunak, justifikatzeko modua eta epea, eta konturako ordainketak eta ordainketa aurreratuak egiteko aukera aurreikusten den kasuetan, epea, ordaintzeko modua eta bermeen araubide partikularra barne hartzen direla egiaztatzea.

\* Egiaztatzea dirulaguntza eman duen erakundeak idatziz adierazi duela beharrezko egiaztapenak egin dituela, eta egiaztatu duela onuradunek egiaztatu dutela betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela, bai eta laguntza ematea edo jasotzea dakarten jarduerak egin dituztela ere.

#### **4.2. PLANAREN JARDUKETAK, 2024ko EKITALDIKOAK**

2024ko ekitaldiko Finantza Kontroleko Urteko Planean sartu beharreko jarduketak honela banatzen dira:

- A) Nahitaezko kontrol iraunkor planifikagarria
- B) Auditoretza publikoa
- C) Erakunde laguntzaileen eta dirulaguntzen onuradunen finantza-kontrola

##### **A) NAHITAEZKO KONTROL IRAUNKOR PLANIFIKAGARRIA**

32/2018 Foru Arauaren 32. artikulua arabera, kontrol iraunkorreko jarduketaren exekuzioa honela izango da:

*“1. Kontrol iraunkorreko lanak etengabe egingo dira, eta jarduketa hauek barnean hartuko dituzte:*

*a) Ziurtatzea betetzen direla eginkizun kontu-hartzaileak hartzen ez dituen kudeaketa ekonomikoaren alderdiei aplikagarri zaizkien araudia eta prozedurak.*

*b) Jarraipena egitea aurrekontu exekuzioari, eta egiaztatzea helburuak betetzen direla.*

*c) Egiaztatzea diruzaintzaren plangintza, kudeaketa eta egoera.*

*d) Exekutatzeko tokiko sektore publikoko aurrekontuei eta kudeaketa ekonomikoari buruzko arauetan organo kontu-hartzaileari esleitutako jarduketak.*

*e) Aztertzea eragiketak eta prozedurak, baloratzeko haien arrazionaltasun ekonomiko-finantzarioa eta kudeaketa onaren printzipioekiko egokiera, betiere balizko akatsak sumatu eta haiek zuzentzeko gomendioak proposatze aldera.*

*f) Toki entitatean ziurtatzea, laginketako tekniken bidez, organo kudeatzaileek kontabilitate informazioaren euskarri gisa emandako garrantzi ekonomikoko datuek eta informazioak arrazoizko modu batean islatzen dutela haien jarduera ekonomiko-finantzarioaren barruan egindako eragiketen emaitza.*

*2. Organo kontu-hartzaileak organo kudeatzaileari jakinaraziko dio haren laguntza behar duten kontrol iraunkorreko jarduketak hasiko direla.*

*3 .Kontrol iraunkorreko lanak egiteko behar diren ziurtapenak sistematikoki eta horretarako aukeratutako eragiketak edo jarduketak aztertzeko prozedurak aplikatuta egingo dira, betiere ebidentzia nahiko, egoki eta baliagarri bat lortze aldera.*

*4. Ziurtapen horiek auditoretza prozedurak aplikatuta egiten badira, sektore publikoko auditoretza arauen menpe geldituko dira.*

*5. Jarduketak honelakoak izan daitezke, besteak beste:*

*a) Aztertzea organo kudeatzaileak prestatutako kontabilitate erregistroak, kontuak, egoera orri finantzarioak edo jarraipenerako egoera orriak.*

*b) Jarraipena egitea eragiketa indibidualizatuei eta konkretuei.*

*c) Egiaztatzea egintza multzo baten alderdi partzialak eta konkretuak.*

*d) Materialki ziurtatzea obrak, zerbitzuak, hornidurak eta gastuak benetan eta behar bezala gauzatu direla.*

*e) Aztertzea kudeaketako sistemak eta prozedurak.*

*f) Berrikustea beharrezkoak diren kudeaketako sistema informatikoak.*

*g) Beste egiaztapen batzuk egitea, kontuan hartuta organo kudeatzaileak egindako jarduera ekonomiko-finantzarioen ezaugarri bereziak eta haien helburuak.*

#### EREMU SUBJEKTIBOA:

- Donostiako Udala
- Kiroletako Udal Patronatua
- DonostiaTIK
- Udalaren Musika eta Dantza Eskola
- Miramar Jauregia Partzuergoa

## EREMU OBJETIBOA:

Jarduera hauen bidez egitea aurreikusten da kontrol iraunkorra:

### **1.- Berankortasunaren arloko araudia betetzen den ebaluatzea**

Faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 Legearen 12.2 artikulua agindutakoa betez, berankortasunaren arloko araudia betetzen den ebaluatzeko txosten bat egingo da. Zehazki, egiaztuko da ea lehen aipatu ditugun erakundeek abenduaren 29ko 3/2004 Legea betetzen duten –merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen– eta Ministerioari Autoriza aplikazioaren bidez hiru hilean behin eman beharreko informazioa ematen dioten.

2.- Sistemen auditoretza, **fakturen kontabilitate-erregistroek** 25/2013 Legean eta hura garatzeko araudian aurreikusitako funtzionamendu-baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko. Kontrol hori egiteko, eta 32/2018 Foru Dekretuaren 4.3 artikuluari jarraikiz, kanpoko lankidetzak bat kontratatu da, eta honako prozedura hau aztertuko da:

- a) Kontabilitate-bulegoak fakturen kontabilitate-erregistroa kudeatzen duela egiaztatzea, fakturak erregistratuta eta izapidetzeko identifikazio-kode bat esleituta.
- b) Kontabilitate-bulegoak fakturak baliozkotzen dituela egiaztatzea, eta, baliozkotzeko modukoak ez badira, atzera ere bidalitako administrazio-erregistroa itzultzen dituela.
- c) Kontabilitate-bulegoak baliozkotutako fakturak organo eskudunei bidaltzen dizkiela egiaztatzea, adostasun-prozedura izapidetu dezaten haiek.
- d) Organo eskudunek fakturak onartu edo baztertu egiten dituzten egiaztatzea; baztertu gero, baztertzeko arrazoia adierazi eta fakturen kontularitza-erregistroan jasota hori, noiz gertatu den ere jarrita.
- e) Organo eskudunek fakturari oniritzia ematen dioten edo ez egiaztatzea.
- f) Betebeharra onartu eta ordainketak agindu aurretik egin beharreko esku-hartzea egiten dela egiaztatzea.
- g) Fakturaren ordainketa fakturen kontularitza-erregistroan jasoko dela egiaztatzea.
- h) Hornitzaile batek aurreko faktura bat baliogabetzeko egindako eskaera fakturen kontularitza-erregistroan jasotzen dela egiaztatzea, salbu eta faktura hori erregistro horretan jasota ez badago, jasota badago, baztertu egingo litzateke eta. Idatzi ondoren, egiaztatu behar da eskaera izapidetzeko eskumena duen organoari jakinarazten zaiola, eta baietsi eta baliogabetu egingo du hark gero. Horrez gain, egiaztatu behar da fakturen kontularitza-erregistroan dagozkion idatzoharrak ere egin direla, baliogabetutako fakturari buruzkoak, edo, bestela, atzera botatzeari buruzkoak.

Aztertu beharreko faktura motak:

a) Arruntak edo osoak. b) Sinplifikatuak. c) Laburpenak. d) Fakturen kopiak. e) Zuzentzekoak.

Nolanahi ere, dagokion toki-erakundeko organo edo erakunde bati bidali eta faktura elektronikoen sarrera-puntu orokorrean aurkeztutako fakturarik ez dela prozesuaren faseren batean atxikita geratu egiaztatuko da.

Kanpoan geratzen dira, nola auditoretza operatiboen barruan espedienteen egiazkotasuna eta sendotasuna egiaztatzen duten kontrolak egitea, hala fakturen kontabilitate-erregistroen funtzionamenduari buruzko txosten estatistikoak egitea ere.

Era berean, egindako gastuetatik edo jasotako ondasun eta zerbitzuetatik etorritako obligaziorik den ere egiaztatuko da, aurrekontu-egozpenik egin gabe dutenenik.

## **B) AUDITORETZA PUBLIKOA**

32/2018 Foru Dekretuaren 33. artikulua araber, auditoretza publikoko jarduketaren exekuzioa honela izango da:

*«1. Auditoretza publikoko jarduketak sektore publikoko auditoretza arauen menpe egongo dira, bereziki alderdi hauei dagokienez: lanaren exekuzioa; txostenen prestaketa, edukia eta aurkezpena; beste auditore batzuen lankidetzak; eta auditoretza publikoko lanen kalitatea eta homogeneotasuna ziurtatzeko behar diren beste alderdi batzuk.*

*2. Organo kontu-hartzaileak jarduketak hasiko direla jakinaraziko dio, idatziz, auditatutako zerbitzu, organo, organismo edo entitateko titularrari. Auditoretzako lanek barnean hartzen dituztenean beste kontrol organo eskuordetu baten jarduketa eremuaren barruan egitekoak diren jarduketak, kontrol organo horretako titularrari jakinaraziko zaio jarduketak hasiko direla. Era berean, auditoretzari lotutakoak ez diren beste zerbitzu, organo, organismo edo entitate batzuetan jarduketak egitea beharrezkoa denean, hala jakinaraziko zaio zerbitzu, organo, organismo edo entitate horretako titularrari.*

*3. Auditoretza publikoko jarduketak honako toki hauetan egin ahal izango dira:*

*a) Auditatutako entitatearen dependentsietan edo bulegoetan.*

*b) Beste entitate edo zerbitzu batzuen dependentsietan edo bulegoetan, baldin eta bertan kokatuta badaude jarduketak egiteko garrantzitsutzat hartzen diren dokumentazio, artxibo, informazio edo aktiboak.*

*c) Auditoretzako enpresa pribatuen lokaletan, baldin eta beharrezkoa bada erabiltzea auditatutako entitateen eskariz auditoretza enpresa horiek egindako lanaren paperezko euskarriak.*

*d) Jarduketa horien ardura duen organo kontu-hartzailearen dependentsietan.*

*4. Auditoretza prozedurak aplikatzeko, jarduketa hauek egin ahal izango dira:*

- a) Aztertzea auditatutako organo, organismo edo entearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioari zuzenean edo zeharka eragiten dioten mota guztietako agiriak eta aurrekariak.
- b) Eskatzea auditoretza egiteko beharrezkotzat hartzen den informazioa eta dokumentazioa.
- c) Eskatzea auditoretza egiteko garrantzitsutzat hartzen den organo, organismo eta entitate publikoei buruzko informazio fiskala eta Gizarte Segurtasuneko informazioa.
- d) Eskatzea, auditatutako zerbitzu, organo, organismo edo entitatearekin lotuta dauden hirugarrenei, hark egindako eragiketen informazioa, haiek sortutako kontabilitate saldoen informazioa eta kostuen informazioa, baldin eta espresuki kontratuan aurreikusita badago Administrazioak informazio hori eskuratzeko aukera edo hirugarren pertsona edo entitate horiekin akordio bat badago alderdi horri dagokionez. Eskaerak auditatutako entitatearen bidez egingo dira, salbu eta, kontrol organoaren iritziz, hainbat arrazoi direla medio gomendagarria bada informazioa zuzenean eskatzea.
- e) Ziurtatzea informazio ekonomiko-finantzarioa eta kontabilitate informazioa gordetzen duten sistema informatikoen segurtasuna eta fidagarritasuna.
- f) Egitea auditatutako entearen aktiboen mota guztietako egiaztapen materialak; horretarako, auditoretza egiten duten pertsonen sarbide irekia izango dute haietan.
- g) Eskatzea beharrezkoak diren aholku eta irizpen juridiko eta teknikoak.
- h) Egitea ondorioak oinarritzeko beharrezkoa den ebidentziaren lorpenerako beharrezkoak diren beste jarduketak guztiak.

## EREMU SUBJEKTIBOA

- Kontuen auditoretza publikoan:

- Aurrekontu mugatzailea duten mendeko edo atxikitako erakundeetan (Kiroletako Udal Patronatua, Donostiatik, Musika eta Dantza Eskola eta Miramar Jauregia)
- Udalaren mendeko enpresa-erakunde publikoetan (EPE Donostia Kultura eta EPE Etxegintza)
- Udalaren partaidetza osoa duten sozietateetan (Sociedad del Balneario La Perla del Óceano, S.L., Polloe Donostiako Hileta Zerbitzuak, S.A., Donostia Turismoa, S.A., eta Victoria Eugenia, S.A.)
- Cristina Enea Fundazioan, baltzuak dituen estatutuetan hala jarrita dagoelako.

- Betetze-mailari buruzko auditoretza publikoetan eta operatiboetan:

- Udalaren mendeko enpresa-erakunde publikoetan (EPE Donostia Kultura eta EPE Etxegintza)
- Udalaren partaidetza osoa duten sozietateetan (Sociedad del Balneario La Perla del Óceano, S.L., Polloe Donostiako Hileta Zerbitzuak, S.A., Donostia Turismoa, S.A.,

Victoria Eugenia, S.A., Donostiako Sustapena, S.A., Donostiako Tranbiaren Konpainia, S.A., San Telmo Museoa, S.A. eta Anoeta Kiroldgia S.A.)

- Cristina Enea Tokiko Fundazio Publikoa

## KONTU-IKUSKARITZA PUBLIKOAREN EREMU OBJEKTIBOA

Alderdi hauek aztertuko dira:

- a) Ea urteko kontuek, alderdi esanguratsu guztietan, ondarearen, finantza-egoeraren, erakundearen emaitzen eta, hala badagokio, diru-fluxuen irudi fidela adierazten duten.
- b) Ea aurrekontua bete behar dituen kontabilitate eta aurrekontu arau eta printzipioen arabera erabiltzen den.
- c) Kontuek behar bezala interpretatzeko eta ulertzeko behar den informazioa dutela egiaztatzea.

Kontu-auditoretza egiteko gutxienez zeregin hauek egin behar dira:

- Erakundearen kontu orokorra aztertzea, egiaztatzea, konparatzeko, berresteko, aztertzeke eta aplikatu beharrezkoak jotzen diren gainerako prozeduren bidez, helburua dela iritzia ematea finantza-egoerak, balantzeak, kontuek eta memoriak ondo erakusten dituzten haien ondare-egoera, eragiketen emaitzak eta finantza-egoeraren aldaketak, dagokien araudiaren arabera.
- Barne-kontrol sistemak ebaluatzea; eragiketarak antolatzeke eta baimentzeke, gauzatzeko eta kontrolatzeko kontabilitate eta administrazio prozedurei dagokienez.
- Auditatutako erakundeak gastuen aurrekontua mugatzekoak badu, egiaztatu behar da erakundearen finantza-informazioak ondo erakusten duela likidazio-egoeran adierazitako aurrekontuaren exekuzioa, etorkizuneko aurrekontuak finantzatzeko gaitasuna (diruzaintzako gerakinaren bidez erakutsita), diru-fluxuen egoeratik ondorioztatutako kobrantzen eta ordainketen fluxua, balantzearen finantza eta ondare egoera eta ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuan islatutako gastuak eta sarrerak, zentzu ekonomikoan.
- Auditatu edo ikuskatu beharreko urteko kontuekin batera kudeaketa-txostena aurkezten bada, ea kudeaketa-txostenean jasotako kontabilitate-informazioa urteko kontuekin bat datorren.
- Sistema informatikoek kontabilitate-informazioa behar bezala tratatzen dutela eta urteko kontuak egitekoan ez dutela arriskurik sortzen egiaztatzea.
- Finantzatzeko ahalmenaren/beharraren, gastu-arauaren eta zorraren magnitudeak kalkulatzeko, kontu publikoen Europako sistemaren arabera.

- Kapital Sozietateei buruzko Legearen Testu Bateginaren 262.5 artikulua dakartzan betebeharrak betetzen dituzten udal sozietate publikoetan, urteko kontuak formulatzekoan emandako informazio ez-finantzarioaren egoerari buruzko txosten bereizia egin behar da, nola hura egitekoan dokumentu bat aparte egin bazen, hala kudeaketa-txostenean sartu bazen.

### BETETZE-AUDITORETZA PUBLIKOAREN EREMU OBJEKTIBOA

Betetze-auditoretza egiteko zeregin hauek egin behar dira, auditatutako erakundearen izaera juridikoaren arabera:

- Gastuak eta diru-sarrerak erakundearen helburuetara egokitzen direla egiaztatzea.
- Gastuak eta diru-sarrerak erakundearen aurrekontuetara eta jardun-programetara egokitzen direla egiaztatzea.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzea. Aurkeztu behar diren aitorten-ereduak dagokien epean aurkeztu direla egiaztatu behar da.
- Langileen hitzarmen kolektiboa indarrean diren lege arauetara egokitzen dela egiaztatzea. Soldata-berrikuspena egiaztatzea, aplikatu beharreko arau-esparruaren arabera. Langile-gastuak behar bezala egozteak. Soldata-kontzeptu aldakorrak berrikustea.
- Gastua eta ordainketa organo eskudunek baimendu dituztela egiaztatzea.
- Diru-sarreraren finantza-zirkuituan aplikagarria den legeriaren betetze-maila (kitapena, bilketa eta ez-ordaintzeen kudeaketa).
- Baimendutako zor-mugen betetze-maila egiaztatzea.
- **KONTRATAZIO** publikoaren arloan erakunde bakoitzak duen izaera juridikoaren arabera aplikatu behar den legeriaren betetze-maila egiaztatzea. Erakunde bakoitzeko 3 espediente aztertuko dira urteko, irismen honekin:
  - a) Erakundea administrazio publikoa edo esleitzeko ahalmena duen erakunde baten kontratu harmonizatua izanez gero:**
    - \* Kontratazio-espedienteak kontratua arautuko duten administrazio-klausula partikularren agiria eta baldintza teknikoaren agiria, edo SPKLn aurreikusitako ordezkotako dokumentuak, jasotzen dituela egiaztatzea.
    - \* Egiaztatzea behar bezala justifikatuta dagoela kontratatutako prestazioak kontratatuta erantzun nahi zaion beharri erantzuten zaiola eta kontratuaren xedearekin lotuta dela hura.
    - \* Egiaztatzea justifikatuta dagoela: i) zerbitzu-kontratuetan, behar adina baliabide propiorik ez dela, ii) sortatan ez zatitzeko erabakia, iii) kontratuaren balio zenbatetsia iv) kaudimen-irizpideak, v) lizitazio-prozedura aukeratzea eta vi) adjudikazio-irizpideak eta formularen hautaketa, hala badagokio
    - \* Egiaztatzea lizitazio-iragarkia argitaratu dela
    - \* Egiaztatzea ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari esleitu zaiola
    - \* Egiaztatzea erakundeak kontratuan xedatutakoarekin bat datozeala egiaztatzen duten obra-ziurtagiriak edo dokumentuak onartu dituela egiaztatzen duen ebidentzia dela.
    - \* Egiaztatzea esleipena egiten duen organoaren eskumena
    - \* Egiaztatzea, kontratua aldatuz gero, aldaketa eragin duten interes publikoko arrazoiak justifikatzen dituen euskarria badela, bai eta SPKLn ezarritako kasuen artean dela ere.



\* Egiaztatzea kontratua beteta dela eta onespen teknikoak duela.

**b) Administrazio publikotzat hartzen ez diren eta esleitzeko ahalmena duten erakundearen kontratu harmonizatu gabeak izanez gero:**

\* Licitazioak prestatzeko eta esleitzeko aplikatu beharreko alderdiak egiaztatzea, erakundearen izaera juridikoaren arabera.

\* Esleipendunak kontratuaren xede den prestazioa emateko izan behar diren jarduteko gaitasuna eta lanbide gaitasuna badituela egiaztatu dela egiaztatzea.

**c) Administrazio publikotzat edo administrazio publikoa ez izan arren esleitzeko ahalmena duen erakundetzat hartzen den erakunde batek egindako kontratu txikiak izanez gero:**

\* Egiaztatzea espedientean dela kontratazio-organismoaren txostena, modu arrazoituan justifikatzen dituen alderdi hauek denak: kontratua egin beharra izatea, haren bidez kontratuaren xedea kontratu txikiaren atalaseak aplikatzea saihesteko aldatzen ez aritzea, gastua onartzea, hala badagokio, legez ezarritako baldintzak betetzen dituen faktura eta obraren aurrekontua, obra-kontratu txikia izanez gero.

\* Esleipendunak kontratuaren xede den prestazioa emateko izan behar diren jarduteko gaitasuna eta lanbide gaitasuna badituela egiaztatu dela ziurtatzea.

- **LANGILEEN HAUTAKETAN** aplikatu beharreko legeriaren betetze-maila egiaztatzea. Erakunde bakoitzeko 3 espediente aztertuko dira urteko, irismen honekin:

\* Hautaketa-prozesuetan, egiaztatzea, batetik, gaitasun, merezimendu, berdintasun eta ez diskriminatze printzipioak, bai eta publizitate eta lehia printzipioak ere, errespetatu direla, eta, bestetik, Estatuko Aurrekontuen Lege Orokorrean ezarritako kontratazio-mugak ere bete direla.

- **HITZARMENETAN** aplikatu behar den legeriaren betetze-maila egiaztatzea. Erakunde bakoitzeko espediente 1 aztertuko da urtean.

- Erregistroan inskribatu beharreko egintzak aurkezteko betebeharrak betetzen direla egiaztatzea.

## AUDITORETZA PUBLIKO OPERATIBOAREN EREMU OBJEKTIBOA

Alderdi hauek egiaztatu edo aztertuko dira:

\* Aztertutako erakundeek emandako zerbitzuen benetako kostua.

\* Barne-kontrolako prozedurak ikuskatu beharreko ekitaldi bakoitzeko urteko kontuen arlo edo epigrafe esanguratsuenetan: Ibilgetua, diruzaintza, funts propioak, epe motzeko hartzekodunak, zorpetzea eta ustiapeneko beste gastu batzuk.

\* Erabilitako prozedurak finantza-kudeaketa onaren printzipioetara egokitzea, eraginkortasunaren kontrola barne; adibidez, programatutako helburuen betetze-maila egiaztatzea eta zerbitzuen kostua eta errendimendua kontrolatzea, tokiko baliabide

publikoen erabileran efizientzia, aurrekontu-egonkortasun eta finantza-jasangarritasun printzipioei jarraituz.

\* Erakundeak egiten duen kudeaketa-eredua ondoen definitzen duten ezaugarriak eta haren ezaugarri orokorrak (helburuen arabeko kudeaketa, prozesuen arabeko kudeaketa, eta abar), bai eta plangintza-maila ere (plan estrategikoak, gida planak, plan operatiboak eta horrelakoak izatea).

\* Eginkizunak eta eskumenak esleitzea, bai unitateei, bai pertsoneri; eta barne-kudeaketako prozeduren eskuliburuak izatea.

\* Etengabeko prestakuntzako politika batzuk izatea eta politika horiek lana egiteko orduan zer eragin duten.

\* Diren ahuleziarik handienak eta etorkizunean baliabideak hobeto kudeatzeko eta esleitzeko hobekuntza-ekintzak.

Aipatutako jarduera horiek egiteko, 32/2018 Foru Dekretuaren 34. artikuluan jasotzen da lankidetzaren publiko edo pribatua kontratatzeak aukera, eta honela izan behar duela jartzen du:

*1. Organo kontu-hartzaileak proposatuta, auditoretza publikoak egiteko, toki entitateek lankidetzaren publikoa edo pribatua lortu ahal izango dute ondorengo apartatueta jasotakoaren arabera.*

*Horretarako, toki entitateen aurrekontuetan, lankidetzaren beharrak asetzeko nahikoak diren kopuruak jasoko dira.*

*2. Auditoretza publikoko jarduketak egiteko, toki entitateek beste organo publikoen lankidetzaren lortu ahal izango dute, bai eta hitzarmenak sinatu ere.*

*3. Era berean, organo kontu-hartzailearekin lankidetzaren aritzeko, toki entitateak auditoretza pribatuko zerbitzuak kontratatu ahal izango ditu, betiere organo kontu-hartzaileak emandako jarraibideen arabera.*

*Auditoretza pribatuko zerbitzuak gehienez bi urterako kontratatuko dira, sektore publikoko kontratuen legerian jasotakoaren arabera luzatuta. Halere, lan horiek asko jota zortzi urtez egin ahal izango dira, luzapenaldiak barne, entitate beraren gainean elkarren segidako kontratazioen bidez, eta, horretarako, zerbitzu horiek ezin izango dira entitate beraren gainean lanak egiteko kontratatu harik eta bi urte igaro arte zortzi urteko epea amaitzen denetik aurrera.*

*Ezin izango dira kontratatu, organo kontu-hartzailearekin lankidetzaren aritzeko, auditoretza egingo den urte berean edo aurreko urtean entitatearentzat auditoretza txostenean iritzia eman behar duten arlo edo gaien inguruan beste lan batzuk egin edo egiten dituzten auditoretza sozietateak eta kontu auditoreak.»*

Alde horretatik, esan dezagun barne-kontrolako eginkizunak egiteko araudiak asko aldatu eta handitu duela toki-erakundearen esku-hartze organoen jarduna, eta haien eskumenak indartu

eta beste betebeharrak batzuk jarri ditu finantza kontrolean, erakunde nagusi osoari (Udalari) eta haren mendeko eta hari atxikitako erakunde guztiei eragiten dieten betebeharrak batzuk.

Kontu-hartzailera eta Kontabilitate Zuzendaritzak gaur egun plantillan dituen udal-langileek ez daukate lan-bolumen horri guztiari heltzerik, finantzak kontrolatzeko lan horiei, kontu-hartzailera lana egiteko espedienteetan egin behar duten txosten mordo handia egitea ere erantsi behar baitaio, bai eta espediente horiek aurrekontua erabiltzeko faseetan sarri-sarri fiskalizatu behar izatea ere.

Gainera, finantzak kontrolatzeko lanak egiteko –auditoretzakoak, bereziki– ezagutza espezializatuak eduki behar dira, eta gaur egun diren langileek ez dituzte, plantillan ez dago auditore plazarik batere eta.

Beraz, eraginkortasun tekniko eta antolamendu kontuak aintzakotzat harturik, helburuak jarritako epean beteko badira, finantza kontrolerako jarduketak egiteko lankidetera-zerbitzuak kontratatzeko lizitazio-prozedura Udaleko Kontu-hartzailera Nagusiarekin egin behar izatea ekarri dute, bai eta merkataritza-legeriaren arabera ikuskatu behar diren erakundearen auditoretza-zerbitzuak noizean behin batera kontratatzea ere.

## **C) ERAKUNDE LAGUNTZAILEEN ETA DIRULAGUNTZEN ONURADUNEN FINANTZA-KONTROLA**

### EREMU SUBJEKTIBOA

- Udala

- Udalaren mendeko erakundeak, dirulaguntzak ematen dituztenak: Kiroletako Udal Patronatua, EPE Donostia Kultura, EPE Etxegintza eta Donostiako Sustapena, S.A.

### EREMU OBJEKTIBOA

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera, alderdi hauek egiaztatuko dira:

- Tokatzen den dirulaguntza jasotzea eta behar bezala jasotzea.
- Dirulaguntza kudeatzeko eta aplikatzeko betebeharrak betetzea.
- Tokatzen den dirulaguntza eta behar bezala jaso dela ziritzea.

- Onuradunek eta erakunde laguntzaileek aurkeztutako justifikazioaren arabera dirulaguntzaren bidez finantzatu diren eragiketen errealitatea eta erregularatasuna.
- Diruz lagundutako jarduerak tokatzen zitzairen finantzabidea izatea; hau da, dirulaguntzaren zenbatekoa, hura barrik hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ez izatea diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.
- Dirulaguntza ematen duen toki-erakundeari aitortu gabeko gertakari, inguruabar edo egoerak izatea; diruz lagundutako jardueren finantzaketari, dirulaguntza behar bezala lortu, erabili, gozatu edo justifikatzeari, edota finantzatutako eragiketen errealitateari eta erregularatasunari eragiteko modukoak.

Horiek egiteko, Udalaren erakunde laguntzaile baten eta kontrol hori egiten den erakunde bakoitzeko dirulaguntzen 3 onuradunen gaineko kontrola egingo da.

### **III. ZATIA: FINANTZA-KONTROLAREN EMAITZAK, ONDORIOAK ETA ERAGINAK**

32/2018 Foru Dekretuaren 35.1 artikulua arabera: «kontrol iraunkorreko jarduketan eta auditoretza bakoitzaren emaitza idatzizko txostenetan dokumentatuko da. Haietan, modu argi, objektibo eta neurtuan azalduko dira egiaztatutako gertakariak, lortutako ondorioak eta, hala badagokio, kontrolpeko jarduketei buruzko gomendioak. Era berean, berehalako jarduketa zuzentzaile baten bidez zuzendu beharreko akatsak adieraziko dira, eta hura gauzatu dela ziurtatu beharko da ondorengo kontrol jarduketetan.»

Finantza-kontrolaren emaitzak txosten idatzietan dokumentatuko dira, eta dagozkien erakundeei, alkateari eta osoko bilkurari jakinaraziko zaizkie, jakinaren gainean izan daitezen, eta osoko bilkurak gai-zerrendatik aparteko puntu bat izango du gai hori aztertzeko. Zehazki, urteko laburpen-txosten bat egingo du Udalaren Kontu-hartzaitzak –emaitza esanguratsuenak bilduko dituena–, eta Osoko Bilkurari aurkeztuko zaio hura Kontu Orokorra onartzeko garaian.

Azkenik, 32/2018 Foru Dekretuaren 38. artikulua arabera, «Toki entitateko lehendakariak ekintza plan bat formalizatuko du, eta bertan barnean hartuko dira aurreko artikuluan aipatutako txosten laburtzailean agerian jartzen diren ahuleziak, akatsak eta ez-betetzeak zuzentzeko hartu beharreko neurriak.» Laburpen-txostena osoko bilkurara bidali eta 3 hilabete jaon baino lehen egin behar da ekintza-plana, eta neurri hauek izan behar ditu:

- Zer neurri zuzentzaile eta prebentibo jarri behar diren.
- Zein diren horiek aplikatzeko ardura dutenak.
- Inplementatzeko egutegia.

## **KONTU-HARTZAILE NAGUSIA**

Donostia, 2024ko uztailaren 10a.

